


7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide behar ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** Aparkaleku bat libre edo okupatuta dagoen jakiteko sentsore batzuk jarri behar ditugu aparkalekuetan; distantzia sentsoreak hain zuzen ere.



- **Baliabide intelektualak:** Aplikazioa egiteko programa informatiko bat behar dugu; APP-a erabiltzeko eta sentsoreekin erlazioa sortzeko. Horretarako ordenagailuak erabiliko ditugu.
- **Giza baliabideak:** Gu bostok egingo eta kudeatuko dugu lana.
- **Finantza-baliabideak:** Sentsoreak egiteko eta instalatzeko dirua beharko dugu. Diru iturriak oso garrantzitsuak dira era lehen esan dugun bezala, Interneteko Crowdfunding eta Big Data saltzearen bitartez lortuko dugu dirua.
- **Baliabide-ukiezinak:** Proiektua aurrera eramateko, informazioa bilatuko dugu interneten eta behar izatekotan, ezagunei galdetuko diegu.
- **Harreman baliabideak:** Getxoko udaletxea, TAO zerbitzua (Gertek), Getxoko Denden Elkarte eta Getxobizi.

Enpresa antolatzeko, organigrama bat egin dugu. Bostok sortu dugu enpresa eta erabakiak hartzeko denon iritzirik kontuan hartu ditugu, beraz, enpresa bosten artean kudeatuko dugu. Bakoitzak bere aportazioa egin du eta horregatik guztiok garrantzi berdina daukagu enpresan. Hortaz, enpresaren organigraman, bostok egongo gara maila berdinean.